

Markoa ezar-
tzea gusta-
tzen zaio
Ane Ablanedo-
ri, bestela
eman bailezake ebaluazioa gau-
za natural bat dela, egin beha-
rrekoa. Zer ebaluatu, zertara-
ko...? Badira gauza aunitz
galdetu beharrekoak, eskolari
lotuta ere bai. Nork jarri du, zer
asmorekin...?

Iruñea (NUP) eta Baiona (UP-
PA) artean bizi den irakasleak
ebaluazioa eta kalifikazioa be-
reizi ditu aurrena. «Tamalez, ba-
tera doaz eta gehiago da kalifi-
kazioa orain egiten dena. Eba-
luazioa oso prozesu sakona,
konplexua eta beharrezkoa da
bizitzako edozein proiektutan,
helburuak zein diren begiratura,
zertan asmatu eta huts egin du-
gun ikusteko. Zentzu horretan
ez dut sentitzen eskolak bene-
tan ebaluatzen duenik».

Bere iritziz, kuestionatu be-
harko litzateke lehenik eta abia-
puntu gisa, zergatik ezarri behar
zaion ikasteari toki eta momen-
tu zehatz bat, ikastea bizitzaren
gauza natural eta berezko bat
denean. «Kuestionatu behar da
zenbateraino bortxatzen den
haurraren erritmoa, eta beste
gauza asko, eskolan ez ikastea-
ren oinarrian daudenak».

Agertu duenez, eskolaren pa-
rametroen arabera kalifikatu
eta klasifikatzen da ikaslea, «ale-
gia, neurtzen da zenbateraino
den gai hobesten den paradig-
man ibiltzeko. Gainerakoa kos-
metika hutsa da. Prozesu guztia
ebaluatzen dela esaten da, baina
ez da zinez egia».

Hutsa kontzeptuan berean

«Hutsa eskola instituzioaren
kontzeptuan berean dago. Hori
errotik zalantzan jarrita sortu
dira hain zuzen ere beste hezi-
keta eredu batzuk, eskolari ken-
du nahi diotenak benetan hau-
rrak ikasteko eragozpen den
guztia. Eskolak deseskolarizatu
beharko lirateke, benetako bizi-
toki eta ikastoki bilakatzeko.
Kendu beharko genioke eskolari
eskolarekin identifikatzen iraka-
tsi diguten ia guztia; hasteko eta
urgentziaz, azterketak eta kalifi-



Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

ANE ABLANEDO

UNIBERTSITATE IRAKASLEA

Pedagogia eta heziketa modu
alternatiboetan ikerlaria eta formatzailea
da (UEU), baita haurtzaroa zaintzeko
haziera eredu prebentiboan aditua ere.

Maidier Iantzi Goienetxe

«Curriculum
ezkutuko bat du
eskolak eta hori
arrakastaz
betetzen du»

kazio sistema gzutiak, orain
ulertzen den moduko ebaluazio
interesatu hori. Irakaslearen
funtzioa bera ere zalantzan jar-
tzekoa litzateke (ez helduaren
presentzia). Orduan haurrak
ikasi egingen luke, baita eskolan
ere, berez ikasten baitu», defen-
datu du.

«Oztoporik ezean, berezkoa
du bizitzarekiko jakin-mina.
Kontua da gaitasun hori akaba-
tzen dugula haurra gidatu ahal
izateko. Gero nola motibatu izat-
en dugu kezka!».

Hau guztia «absurdoa» litza-
teke Ablanedorentzat «eskola-
ren muntaia osoa ez balitz hain
interesatua. Gaur ezagutzen du-
gun eskola ereduak badu curri-
culum ezkutuko bat eta hori
arrakastaz betetzen du. Bere hel-
buru sakona –baina ez aitortua–
da pertsonak ikas dezala gizarte
eredu konkretu bat, non beste
bat izango zaion beti erreferen-
tzia. Barneratu behar dugu ttipi-
ttipitatik beste norbait izango
dela beti esango diguna zer ika-
si, nola, noiz, eta egiten dugun
hori ongi ala gaizki dagoen».

Benetako ebaluazioa

Adierazi duenez, egungo hezike-
ta eredu konbentzionalari alter-
natibo zaizkion eskoletan saia-
tzen dira ebaluazioa modu
benetako eta integralago batean
egiten. Behatzen dute haurra be-
re osotasunean ongi dagoen, ga-
tazkak konpontzen dakien, bizi-
poza baduen... «Batez ere,
ebaluazioa ez da egiten epaitze-
ko, edo kalifikatzeko. Oztopoak
kentzen laguntzen zaio, haurra
dela erdigunea eta jakinez ba-
koitza dela bere ikasketa eta
ikerketara lerroaren gidaria».

Egia da jendarte honetan titu-
luak behar direla lan bat izateko.
«Unibertsitatera joan nahi ba-
du, orduan egin dezala ikasleak
azterketa bat. 12 urterekin insti-
tutuan sartzeko gogoia pizten
zaiola? Bada, gauza bera. Hezi-
keta eredu ezberdin hauetan
ikasitako haurrek ez dakite bes-
teek baino gutxiago, eta garran-
tzitsuena dena: ez dute ikasteko
gogoia eta jakin-mina galdu».

«Batuetan pentsatzen da ha-
lako ereduetan hazten diren
haurrek egokitze arazoak izaten

dituztela gero, ahanzturik esko-
la konbentzionala dela haur
arrakastatsu eta frakasatuen ar-
tean benetan diferentzia egiten
duena. Heziketa ulertzeko ber-
tze eredu batzuetan ez da hori
pasatzen. Denak dira arrakasta-
su, bakoitzak hautatu bidean».

Bestalde, ohartarazi du Euskal
Herrian indarrean dugun siste-
ma ez dugula legala/ez-legala
edo publiko/pribatu dikoto-
mien arabera sailkatzen ahal, ez
baita gurea. «Arrotza zitzaien
sistema horretatik kanpo sortu
ziren ikastolak, euskaldunon-
tzat gure legalitatea eta publiko-
tasuna izateko borondatearekin.
Gure sistema nazionala. Hortik
jo beharko genukeela iruditzen
zait gure eskola eredu sortzeko,
baita gure gainerako instituzio-
ak ere. Horiek homologatzeko
gure estatua aktibatu beharko
genuke», aldarrikatu du.

Pertsona guztiak ezberdinak
gara eta hori bermatu behar de-
la uste du Ablanedok. «Eskolak
ez luke haurren bizitzan eskurik
ez sartu behar. Haiengan kon-
fiantza ukan behar dugu. Horre-
la beste mota bateko gaitasun
eta ezaugarriak loratzen dira
pertsonean. Ez dute galtzen
beren buruarekiko lotura. Askoz
burujabeago dira, baina sozialki
ez da pertsona askeak sortzeko
interesik».

«Haurtzaroaren paradisuaz
hitz egin ohi dugu, kostatzen
zaigulako onartzea haurrak ere
ez daudela ongi. Eta galdera: zer
egiten ari gatzazkie dauden be-
zala egoteko? Sistemak gudan-
dik nahi duena lortzeko pertso-
na bezala min bat eragin behar
zaigu, batez ere gu mendeko bi-
lakatzeko», ebatzi du. «Zer da bi-
zitza? Zure dohaina aurkitu eta
garatzea. Funtsezko eginkizun
horretan lagundu baino ez luke
egin behar eskolak».

Hezkuntza on baten oinarriak
zeintzuk liratekeen azalduz bu-
katu dugu solasaldi luzea: «Hau-
rra gai izatea bere komunitate-
an eta garaian bizitzeko;
horretarako behar dituen jakin-
tza eta gaitasunak garatzea; eta
norberak bizitza honetara zer
egitera etorri den bilatzea, zein
den bere bulkada, zer egiten
duen ongi, eta hori garatzea».